

• MATTIN •



Abstentzioa dela eta

• SABINO CUADRA LASARTE •

[ABOKATUA]

Astebete igaro eta lehenengo ateraldi berotsuak ahaztu ondoren (ederra, benetan, Otegik esandakoa, espainiar hauteskundeetan Iparraldeko abstentzioaren alde agertu zelakoa), burua epeldu eta oinak lurrean jartzeko ordua ailegatu zaigu berriro.

Abstentzioaren aldeko jarrerak, dudarik gabe, bazuen abantailarik. Estatuarekiko loturak salatzea eta apurtzea txalotzeko da beti eta bide horretatik zihoan planteamendua, pauso bat bezala. Hala ere, emaitzak ikusita, nabariagoak izan dira alde ilunak, abantailak baino. *Kotoiaren froga*, nire ustez, ez du gainditu abstentzioak.

Lehendabizi, gogora dezagun, HBk Estatuko hauteskundeetan mantendu ohi duen jarrera, aski haustailea —*rupturista*— izan dela: botoak eskatzea eta Madrilera ez joatea. Europar Parlamentuari buruzkoa baino askoz haustailegoago, jakina. Hori dela eta, zeintzuk izan dira arrazoi politikoak (*politikoak* diot) jarrera hori mutur-muturreraino eramateko? Geure buruarekin harro-harro sentitzea ala jendea hurbi-laraztea? Nafarroan, kasu, zer izan zitekeen hobia, parlamentari bat ateratzea (posible zena) eta PPkoei muturretatik pasatzea hori, ala lortu duguna (...?) lortzea? Eta, beste aldetik, nola konpaginatu tiroi haustaile hori Eusko Legebiltzarrean (Konstituzioaren kumea, ezta?) mantentzen ari den jarrerarekin: partehartze normalizatua, aurrekontu-akordioa,...? Eskizofrenia kutsurik ez al dago joko horretan?

Abstentzioa neurtzeko orduan, abstentzio mota asko nahastuta dagoenez (EHkoa, teknika, instituzioen aurkakoa, PSOE-IUtik desentzuentzat sortua,...), zaila da zenbatzea EHk eragin duena. Hala eta guztiz, ezinbestekoa dugu balorazio-

ak eta iritziak plazaratzea, ondorioak atera behar ditugu eta.

Abstentzioak, dudarik gabe, bere fruituak izan ditu. Begiratu, besterik ez, EHk eragin handia duen herrietan (Goizuetan, Hernanin,...) gertatu dena. EHko hautesleagoak, oro har, fidelotasunaz jokatu du. Hala ere, oso etekin gutxi lortu da beste alderdietatik eta, aitzitik, EHko mordo potolo bat (norainokoa?), EAJra (32.865 boto gehiago lortu ditu) eta boto *zuri-baliogabea* (43.413 boto gehiago) joan dira.

Abstentzioak gora egin du Euskal Herrian (6,8 puntu gehiago), baina Estatuan baino gutxiago igo da (7,38 puntu). Beste aldetik, Euskal Herriko 1999ko hauteskundeetako abstentzioa (%34,65) eta oraingoa (34,88) berdintsuak dira. Horretaz gain, azken hiru Estatuko hauteskundeetan (1993, 1996 eta 2000) Estatu mailako eta Euskal Herriko partizipazioen arteko aldea begiratzaren badugu (partizipazio hori baijuagoa izan da beti Euskal Herrian), 2000koetan alde hori pittin bat murriztu egin dela konturako gara. Horregatik, zilegia da pentsatzea eskubiko jende mordo batek, normalean jarrera abstentziazalea duena, EHkoarekin ez nahasteagatik edo, partehartzaile bihurtu duela bere portaera, abstentzioaren fruituak ezaibatuz.

Beste aldetik, PSE-PSN, IU-EB/PPren botoen azterketa sinplegia iruditzen zait. Beraien botoak batu

ondoren 1996ko %40ko portzentaia berberan segitzen dutela esatea ez da oso zentzuzkoa. Haien arteko ezberdintasunak kontutan ez hartzea (*españolistas* dira..., eta kitto!), itsuarena egitea, besterik ez da. Zeren, ez baita gauza berbera PSE-EEtik eta IU-EBtik PPra botoak joatea —gertatu den bezala—, kontrakoa suertatzea baino. Azken finean, IU-EB partehartzailea izan da Lizarra-

“

Abstentzioaren aldeko jarrerak, dudarik gabe, bazuen abantailarik, baina emaitzak ikusita, nabariagoak izan dira alde ilunak abantailak baino

Garaziko akordioan eta zenbait mugida gehiagotan, eta PP/PSE-EE, aldiz, etsai amorratuak. Gainera, etorkizunari begira, berdina al dira, benetan, IU-EB, PSE-EE edo PP?; berdin zaigu bata edo bestea gora edo behera joatea, indartzea edo ahultzea?

Abstentzioaren alde jotzea akats

polita izan da. Emaitzak hortxe ditugu eta eskuarki alde onak ez dira ia ikusten. Esan dugun bezala, gaurko erronka ez da geure buruarekin harro sentitzea, gizartea berpiztea eta gure esparrua handitzea eta sendotzea baizik. Helburu horiek betetzeko, abstentzioak ez du balio handirik izan. Beste aldetik, apustu hau ez da zerutik jaitsi. Beste apustu batzuekin batera hartu zen bere momentuan (su-etenari bukaera ematea, alde bakarreko greba orokorrari deitzea,...) orain urte eta erdi sortu zen prozesuaren norabidea aldatuz. Horregatik, abstentzioaren ondorioak gainditzea ezin da ongi planteatu beste jarrera orokor hori zuzendu gabe. Dena dela, beste kupeleko sagardoa da hori.

JUAN LUIS ZABALA

Larrugorritan



Emakume bat eta gizonezko bat, larrugorritan biak, besoak altxatuta, inolako babesik gabe, mikrofono aurrean paper batzuk irakurtzen ari den gizon gorbatadun baten aurrean. Non ikusten duzu, irakurle, zeure burua? Ba al duzu benetan esaterik argazki horretan ez duzula zeure burua ikusten, ezagutzen?

Jakina denez, Itoitzen alde biluztu ziren argazkian larrugorritan ageri ziren bi lagunak, Itoitz herriaren alde eta Itoizko urtegiaren aurka, hobeto esateko. Baina izan zitekeen gisako beste txikizio askoren aurka ere, orain aldeko propaganda-bolada izatea egokitu bide zaion AHTaren aurka esaterako; izan zitekeen emakumearen zapalkuntzaren aurka; izan zitekeen aberats eta pobreen arteko ezberdintasun gero eta handi eta lotsagarriagoa salatzeke, kanporozorren deusezteke eskatzeko; izan zitekeen torturaren aurka; izan zitekeen espetxeen apurtzea eskatzeko edo izan zitekeen, zehazkiago, euskal preso sakabanaketaren aurka; izan zitekeen Pasaiaiko sarraskia gogora ekartzeko, Frantziako Gobernuari Jean Louis Larreri buruz galdera egiteko, Espainiakoa —eta EAEkoari— Jose Luis Gerestari buruz, NATOri Iraken etengabe hiltzen duen jendeari buruz; izan zitekeen armagintza negozio-iturri duten enpresariaren aurka; izan zitekeen XXI. mendean lotsa izpirik gabe monarkia bizibide izaten jarraitzeko asmoa duten errege-erregina guztien aurka; izan zitekeen UEMArekin alde edo, zabalago jakatuz, euskararen alde oro har... Ugariak dira agintearen larderiaren joerak eta jokabideak, jiteak eta gorbatak. Biluziaren azpian are biluziago, ugariak dira gure biluztasunaren geruza amaigabeak.

Emakume bat eta gizonezko bat, larrugorritan biak, besoak altxatuta, inolako babesik gabe, mikrofono aurrean paper batzuk irakurtzen ari den gizon gorbatadun baten aurrean. Gutxitan bezala, irakurle, geure buruak ikusi ditugu telebistan eta hedabideetako lehen orrialdeetan (hedabide batzuetakoetan behintzat), garen bezalakoxeak, geure eguneroko ibileretan —ezta geure ahaide, lagun eta adiskiderik minenen aurrean ere—, agertzen ausartzen ez garen moduan, larrugorritan.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Alienazioa

■ Pentsa liteke Ugandako txikizioan hil direnek pena handirik gabe utziko zutela mundua, agian ez zitzaizela gehiegi inportako zeru baten bila abiatzea Ugandan bizi izanda infernua ezagutzeko aukerak handiak dira-eta. Erlijio eta sekten atzean dagoen gezurra dago hemen, ordea, betiko gezurra. Amarrua eta engainua, eta noski negozioa. Marx eta Engels izeneko bizar zuriko agure haien eta ondorengo gauzak ikastea oraindik ere gaitz baten seinale ez ziren garaietan, alienazioa izeneko zer zen ikas zenezakeen. Oso kontzeptu interesgarria.

Irakurria dut afrikar baten erdi haserreko komentarioa, «zuriei» leporatuz geuk eraman gurela jainkoa Afrikara, eta orain guk bazterrerara utzia dugula. Lehenengo partearekin ados nago, bigarrenarekin ez hainbeste: jainkoa utzi ez, desberdin «sinesten» da. Hemen infernua telebistaz ikusten da-eta.